ORRILLA
1
Eguaztena
Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua... ... 6,00 irko. Iru ile.
Bilbao'atazkua 7,50 „ „
Idazki-Itunmena 62,00 „ urtez
Atzarrijetakuak 100.00 „ „
Beldayen itunduba

XXII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.973 zenbakija

Egunekua

Danok izpidian

Gixakija baño berekoyagorik, iñor bez. Bakotxak berak dagijena txaŕtzat etsiko daun gixaki gitxi ixango gara.

Geuk egiten doguna, enparauko gustijentzat txaŕa ta ezeskaŕija ba-da be, geuretzat ona ixango da.

Beste batzuk egiten dabena, ostera, gixonak egin legikenik egitekorik onena ta goragaŕijena ixango ba'litz be. guretzat txaŕa ixango da, ta gaiztetsi-egingo dogu.

Eŕiketea bide dala soŕtuten diran gora-beretan be, orixe jazoten da: eskeŕak eŕetan daun opila, eskeŕak eŕe daula ta beste barik, eskumiak ezin jan dau. Edo argijago esanda; eztau jan gura. —¿Opila txaŕa dalako? —Ez gixona, ez, eskeŕak egiña dalako baño.

Eta eskumiak egiten daun opilaz be, beste oŕen beste jazoten da. Eskumiak egiten daun opilik, eskeŕak eztau jan gura.

Eta opilaren ordez. "bizkotxubak" egingo ba'leuz be, eleukez jango... Mingoitz eretxiko leuskijo, ta irolara jauŕti.

Gixakijon aŕtian daguan gexorik aundijena ta kaltegaŕijena, orixe da: egindako opila ona ala txaŕa dan; gozua ala mingotza dan; osasungaŕija dan ala eztan begiratu ta ikusi baño lenago, nok egiña dan jakiten ibiltia.

Eta opila egin ixan dauna nor ixan dan jakiten danian, gixaŕte osuaren osasuna baŕuban daukan opila dala jakinda be, opilgiñaren alderdikidiak eztiranentzat, ezeskaŕija ixango da.

Gixaŕte osuaren osasuna ta zorijona loŕtuteko gai dan opila egin dabenaren eŕiketa-lagunak eztiranak, gixaŕtiaren osasunari ta zorijonari begiratu barik. opil ori deusestuteko alegiñak-alegin egingo dabez.

Eŕiketea bide oŕetatik ibili dabilan bitaŕtian, gixaŕtian ezta zorijonik ikusiko, ba. Lanik-ezaren negaŕa ezta ixilduko, langile eŕukaŕijen sendijetan ezta ogirik ugariŭko.

Tamalgaŕi-tamalgaŕija da, au, baña egi-egija.

Palma de Mallorca'n, karlataŕak, mitiña euki dabe.

Eta mitiñera, VII Karla'ren aldiko gudatera juan ixan bai-liran. txapel goŕijak burubetan imiñita juan ziran.

Mitin aretara juan ixan ziranik geyenak, karlataŕak gudara juateko ixan eben zijuaren baŕi ezekijanak ixango ziran, baŕiz.

Ori gora-bera, baña, txapel goŕijakaz jantzi ziran. Eta euren eŕiketa-bidia, beste eŕiketa-bide gustijen ganetik imiñi eben, eta España gaizkatuko daun alderdi bakaŕa, euren alderdija zala, esan.

Orain aginpidian auŕkitzen diranen kaltez, al ixan ebezan eragotiak egin ebezan. Jauŕbide oŕen laguntzale jauŕbideratu ixan diran eskotaŕakatik be, eurentxubak eta bost esan ebezan. España gaxua zuzendu ta zorijon bidian imiñi al-leikien bakaŕak, eurak dira: txapel goŕijak burubetan imiñita Palma de Mallorca'ko karlataŕen mitiñera juan ziranak.

Mallorca'n era oŕetara itz-egin eben karlataŕ txapel-goŕijei; España'ren osasun-bila euren burubetako garaunak urtu biaŕik dabiltzazan España-zale puŕukatuboi; España beriala zoriŭko daun opila, Lerroux'ek egin ixan daun opila dala esanaz, bertatik apuŕ bat jan dagijela-ta eskiñi yozube, bai, ta erantzuntzat ostikada galantak artuko dozubez.

Lerroux'gandiko opilik, donokitik jausiriko ogi onetsijaz egiñikua dala ba'lekije be, eleukiela jango ta abaŕ, erantzungo leuskijuez, ba.

Euren eŕiketa-bidetik eztatoŕen zorijonik, txapel-goŕi oŕeik eztotzube gura, ezta euren espanetan aduŕa baxen saŕi erakusten daben España bijotzekua... betiko zorijonduko daben opila dala jakinda be.

España, gustijak maŕe dabe. Eta bere zorijonaren bila igiŭ dira... Eskeŕak maŕe dau, eskoyak be maŕe... Alan eta gusti be, baña, ain maŕekiro zoriritu gura daben andera oŕen zorija, geruago ta uŕunago ikusten da.

¿Zijua? Eŕiketea. Gixaŕtiaren zorijari baño, bakotxaren eŕiketeari geyago begiratutia, ta abaŕ.

Olako semiak, era oŕetako aldezliak dauzan ama, etxekua baño auzokua ixatia, oba ixango da oŕaŭiño.

Geure etxe baŕuko eŕiketea, irakuŕle, beste oŕeik darabilenaren antzekua dala jakitiak, iguin emongo leuskigula uste dot.

¡Eŕiketea dan iguingaŕija! ¿Gure aŕtian bai-ete?

Gure aŕtian aspalditxubon indaŕtubaz duan eŕiketea, euzkel-idazlien aŕtian soŕtubaz duana da.

Urlijaren idazkereari, berendijak, ifi egiten dautso, ta itz gogoŕakaz ezestubaz, gauza eztantzat eta euzkerearen kaltegaŕirako dala, esan.

Berendijarentzat, ostera, urlijaren idazkerea, benetako ezeskaŕija da. Ikusijaz bestebarik, iguin emoten dautsana. Urlijaren idazlanik, berendijak, eleuke irakuŕiko, ezta uŕezko idazkoŕtzaz idatzija dala jakingo ba'leu be.

Eŕiketea dan iguiña, irakuŕle... Eta gixakirik geyenok, ain iguingaŕija dan eŕiketearen atzeko isatsari elduta gabiltz.

Gure etxe-baŕuko leyotik begiratuta auzo-etxietan ikusten doguzan eŕiketa-itxusijok iguin ba'yakuz, geure etxe-baŕura mustuŕa saŕtu-guran ikusten dogun lau idazle gixagaxuon aŕteko eŕiketeari, ¿zer eretxiko ete-geunkijo?

Goiko Jaunak gaizkatu gaizala atzeŕitik saŕturiko eŕiketa-kokoto edo "mikrobijo" iguingaŕi oŕetatik.

URIBITARTE'TAŔ IBON.

Orrilla bigarrena

Gauŕko egunez andikiro ospatzen dira gure urijan, gure guraso ta gure asabaen urijan, Bilbao maŕe onetako jayak. Txaiderik-txaide goxetik asiŕa eresbatzak diñardue uriŭaŕak alaŭ nairik; suzirijak danbada ikaragaŕijakaz jayetara deŭten dabe eŕi gustijari, zezenketak be, ixaten ei-dira. ¿Zer geyago eskatu ete-geinkioe?

Azaletik beintzat, gusti ori nabaitu daikegu, eresija zaratea, jairako gertakixunak, baña. sartu gaitezan geugan, azteŕtu daigun jai oŕen asteŕena, eta gure sanetatik benetako bilbotaŕen odola baldin ba-dabil, euzkotaŕ zintzuak ba-gara, egijazko abeŕtzaletasunak bijotzaren taupadak igitzen ba-diŭ, baŕen-baŕengo goŕotua jai oŕetarako sortuko yaku; auŕpegija jausi-agiñian erabiliko geunke olako jayak geure uri maŕian ospatzen ŭiralako.

Ixan-be, ezta gitxijagorako, gogoratzen ba-gara jai oŕen zijua; anai aŕteko gudean, atzeŕiŭaŕak zirikatuta, batetik VII Karla'k, bestetik Elisabete bakalemiak euzkotaŕ bidekatuei egundako mesede ta zorijon eskiñirik; batzuk lenenguagaz ta bestiak bigaŕenagaz edeŕto ebaindu ziran, azkenian, gauŕko egunez elisabetetaŕak garale urten ziran eta beste aldekuen menperatze oŕen gomutaz ei-dira gauŕko jai naspilgaŕi oŕeik.

Olantxe bixi ziran geure auŕekuak, abeŕija ezagutu-barik bertoko ondasuna atzeŕijan bilatu nairik; abandotaŕ kementsuba Goiko Jauna'k bialdu euskun-aŕtian; aŕek argi ta zoli adirazo eban euzkotaŕen abeŕi bakaŕa Euzkadi dala, aŕezkero euzkotaŕ zoro txindiŭale ale batzuk ixan-ezik beste gustijok Arana Goiri'ren esanari jaramon eginda alegintzen gara abeŕijaren zorijona loŕtuteko atzeŕiŭaŕakin nastau-barik.

Oŕegaŭik gauŕko egunian Bilbao onetan jai ori ain andikiro ospatzen dabenak, geyenak atzeŕiŭaŕak dira, batez-be atzeŕiŭaŕ eskeŕtaŕak ija-ija beretzat aŕtzen dabe, ta lenago Mallona'ko ildegi zaŕan itzeikixun gustiz lotsagaŕijak egiten ebezan; karlataŕak baŕiz "Trágala" deritxon abestija ez eutzutiaŕen uriŭik alde-egiten eben.

Guda-aldijan karlataŕ gudarostiak urija inguratu eben; baŕukuak gosez ta izkiluen zemaipian oso bildurturik txaŕto bixi ei-ziran; geyen-geyenak bakalemiaren alderdikuak ziran. danak ez ordia: Bilbao'ko bilaldietan gure aŭiŭak (G. B.) bere bekokiko ixerdijagaz soluak gustiz narotuak eukazan, uri-baŕuko guda-mutiŭak saŕi sartzen ei-yakozan lapuŕetan; goiz batian aŭiŭa lanera uŕbildu zanian, an ikusi ebazan guda-mutiŭak barazkijak-eta ostuten, eta amuŕu bixijagaz, lanerako eroyan gurgulu zoŕotza ta zabala erakutsirik, eupada ikaragaŕija jaurtinda onan esaten eutsen: "alde oŕtik "giri" zantaŕ, gosiak ilik, lapuŕtzaŕ oŕeik".

Gixaxua ondo garbaŭu zan; gudarijak zemaitu ebazala-ta salatu eutsoen, ta goŕijak ikusi biaŕ-ixan-ebazan bere burua guda-epaikarijakandik azke aterateko. Jakiña, gure aŭiŭa euzkotaŕ geyenak lez ustetsuago eguan karlataŕen alderdijagaz (karlataŕen nagusija euzkotaŕen aurka etoikeririk baltzena somatuta eukanaŕen).

Ezta ba, gauŕ egun egokija zaratea ateratzeko ta eresija jotzeko; orduban uste onenagaz baña atzipetua okeŕ bidetik, guda-zelaya ibili ta il ziranen-aldez, otoi-egiteko eretija da; euzkotaŕak, bariz, ikaskixun onurakoŕa atera gegike geure asabaen zoritxaŕagandik, baŕiro olako naigabiak ta alkaŕ-astintziak gugandik uŕunduteko, gustijok euzko-alderdijan zintzoro batu gaitezan, eta atzeŕiŭaŕen eŕiketeak (politikak), ekandubak, izpaŕingijak, antzokijak, eliak eta edozetariko kutsubak albuan laga daiguzan, abeŕiaren sendotasuna eskuratzeko.

ETAŔBI.

MOTRIKO

AGUŔ. — Biotzez aguŕ zuzendari ta irakuŕle guzioi; aspaldion "tongo" egin det ezertxo ere idatzi-gabe. Azketsi guziok, bada auŕerantzean jaŕaituko naz lan oni buruz.

EUZKEL-IXENA. — Agiŕebengoa'taŕ Anastasi'ren emazteak auŕtxo edeŕ bat izan du. Augustin Pantzeska euzkel-izenak ezaŕi dizkiote. Zorionak guraso zintzoai.

GASTETXOEN JAUNA-ARTZEA.—Igandean izango dute Jauna-aŕtzea amaika urtetik gorakoak. Guziak bildu bitez gure eleiza edeŕean.

IZPAŔ BELTZA.—"Murugain" azkaŕak ere eriotza oŕetzaz idatzi digu. Azketsi "Kirol-Zale" zati au kentzen ba-det.

KIROLAK. — Igandean jokatu zuten gure pelotariak Aŕasate'n eta emengoak garaile urten ziran (22-14). ¡Bapo mutilak! Igandean ere emekoak neuŕtuko dira Aramayona'taŕekin. Agiŕe ta Aŕieta izango dira emeko jokalariak eta bestetik Ormaetxea anayak. Bigaŕen jokaldian jokaldian jokatuko dute Etxebeŕia eta Sabin'ek Aŕasate'tik; Egiata Txuŕuka'k emendik. Partida edeŕ oneik ikustera notin asko etoŕiko dalakuan gaude. Aguŕ ta uŕengo aŕte.

KIROL-ZALE.

Dr. R. Aranburu
AZALEKO SENDAGILEA
Egunero 11-1, 4-7.
FUEROS, 5, tercero. — DONOSTIA

Eukaristiaren martiri

Iru ekitaldidum antzerkitxoa

Markiegi'tar Peli

ANTZEZ-LAGUNAK:

TARZIZIO, 13 urte.
LORENTZO, Diakonoa.
KUADRATO, Gudari-burua.
BINIZIO, kristau-salataria.
SEBASTIAN, Gudari-burua.
Bi gudari.
Bost mutiko.

Eŕoman. Yesukristo ezkeŕozko III'gn. gizaldian.

LENENGO EKITALDIA

Agertokian Eŕoma zaŕeko kale-bazter edo enparantza

LENENGO AGEŔALDIA

Tarzizio bakaŕik.

Tarz.—Zabaldu dituzte kristauen aurkako iragaŕiak. Yauna! Oiñaze beŕiak zure Eleizarentzako! Gure Martirien odolez goituko dira beŕiz ere bazteŕak. Kristotaŕen erlijioa galdu nai dutela. Ez alpeŕik! Martirien odola beti izan da kristau beŕien azi. Zer? Ez ote dakusgu emen, Eŕoman bertan, sinisgabeen indaŕa egunetik egunera gutxitzen, eta kristotaŕak beŕiz zabalduaz ta yaikiaz ta nunai auŕeak artuaz...? Baiña zertan ari naiz ni emen beŕiketn, Aita Santuarentzako agindua betetzea aztuta! Noan arin!

II'GN. AGEŔALDIA

Lorentzo ta Tarzizio.

Lor.—(Ezkeŕaldetik sartuaz). Tarzizio!

Tarz.—Aguŕ, Lorentzo.

Lor.—Nora inyoan, Tarzizio?

Tarz.—Sixtogana.

Lor.—Aita Santua'gana?

Tarz.—Bai. Gauŕ goizean Salaria kalean gertatu danaren beŕi ematera.

Lor.—Okeŕen bat?

Tarz.—Ez al dakizu?

Lor.—Eleizaren aurkako ezbeaŕen bat orain ere?

Tarz.—Ta ez nolanaikoa. Bai al dakizu Dario ta Krisanto'en ilobia?

Lor.—Yakin ez ba! Guztiak zekitek Arenarium'eun dagon bi Martiri aien ilobia.

Tarz.—Ba bart, Balerianok eragotzita euki aŕen, krisau asko Yatxi dira ixilean luŕazpietara gure Sakramentuak artzera.

Lor.—Benetakoak izan.

Tarz.—Baiña...

Lor.—Ez zizkiteken oŕatik aŕapatuko?

Tarz.—Bai, Kaisar'en gudariak.

Lor.—Salatariren batek edo...

Tarz.—Bai nunbait.

Lor.—Ta lotuta eraman al dizkitek?

Tarz.—Okeŕago. An bertan saŕera guztiak itxi ta goiko argizuloetatik aŕi, lur ta zikiña bota ta bota, bertan bera lurperauta utzi dituzte.

Lor.—Anker zitalak ez bestelakoak!

Tarz.—Bai, baiña ez dituzu makalak gureak ere!

Lor.—Ta zeintzuk ituanik?

Tarz.—Ez. Bakar - bakaŕik dakitena, Kaio apaiza ere an zala.

Lor.—A, bai, gure Kaio agurgaŕia. Yoan zaiguk beraz ori ere... Gutxitzen gutxitzen goazik apaizok.

Tarz. — Zuentzat du legeak amoŕoŕik geien. Apaizak galdu ezkero, Eleiza guztia ere lasteŕ dala beia yota uste dute nunbait.

Lor.—Amesak! Kristo berekin duan Eleiza ez dek galduko munduaren bukaera arte... Ez aut geiago euki nai. Oa, Tarzizio, ta eman akizkiok Aita Santuari beŕi negargaŕi oiek.

Tarz.—Ta zu, Lorentzo, nora ziñazen?

Lor.—Ez nian esan nai, ire biotza ez iluntzeaŕen.

Tarz.—Ilundu? Zer ba?

Lor.—Bai, Tarzizio; baiña, onezkero umea ez aiz-ta. eta gaiñera ire otoitzen beaŕ ere banauk-eta, ara...

Tarz.—Esan zaidazu, Lorentzo; dana dala.

Lor.—Ezagutzen al dituk Tiburtzio ta Balerio, yaun aberatsak?

Tarz.—Oraindik oraiñago kristau egin ta oraiñegun-antzitik bataiatu ziranak?

Lor.—Bai, biexek.

Tarz.—Ta?

Lor.—Yakin dik Almakio agintariak, biak kristauak dirana, ta...

Tarz.—(Laŕi).Ta?

Lor.—Ba sendo aitortu dutela. Kartzelan zaudek eta biaŕ aŕatsaldean dizkitek iitzekoak.

Tarz.—Ta ori al zan neri esaten bildurtzen ziñana?

Lor.—Bai, orixe.

Tarz.—Ori negargaŕi ez da, pozgaŕi ta alaigaŕi baiño. O! Nola ote dago Zezilia ere, ezkondu zan egunean bide-oneratu zuan Baleriano maitea, zorion-ateetan ikusita!

Lor.—Bai, kartzelako atezaia, Maximo lagun diate, ta bere bitaŕtez esan zioten Zeziliari il auŕetik eramateko "berak dakien Ogi ura..."

Tarz.—A. bai, Eukaristia.

Lor.—Oraintxe yakin diat Zeziliak esanda, ta banoa arin eramatera.

Tarz.—Zurekin al dakartzu beraz Sakramentu Donea?

Lor.—Bai, Tarzizio (Au makurtu begirunez). Au nerekin dedala sartu nai nikek kartzelera, anai biak eriotzaren zai dauden lekura...

Tarz.—Garaipenaren zai, Lorentzo, garaipenaren zai.

Lor.—Ala dek. Baiña noan arin.

Tarz.—Bai, zoaz, zoaz arin. Yesus onak emango al die indaŕa ta martiri izateko grazia! Nik laguntzea nai?

Lor.—Bai pozik, kartzelan sartzea gaitzagotuko ez bauke; baiña garai auetan...

Tarz.—Egia...

Lor.—Gaiñera. Aita Santuari Arenarium'eko beŕiak ematera ez al dek ba yoan beaŕ?

Tarz.—Ene, ta alaxe da. Zoaz bai, ta Yauna bekizu lagun.

Lor.—Ik nai bezela izango al dek? Agur. Tarzizio.

Tarz.—Agur, Lorentzo. (Lorentzo biyoa eskuitik; Tarzizio, bide egiterakoan, makurtu begirune aundiz).

III'GN. AGEŔALDIA

Tarzizio bakaŕik; gero umeak yolasera.

Tarz.—(Lorentzo'ri begira oraindik). Argitu Zuk, Yauna, Lorentzo zure diakono gartsuaren bidea. Ta zure aitorle zintzoak indartu beaŕ dituan Ogi Donea igaro dedin, zabal zabal egin kartzelako ateak...! A! Ta nik zure alde il beaŕ eza, Yauna...! (Ume mordoxka ariñeketan ezkeŕetik).

1 umea.—(Sartuaz). Ementxe, ementxe yolas egingo diagu.

2 umea.—Bai, auxe dek tokirik onena.

3 umea.—Ene! Zein dek au! I ere emen Tarzizio? Zenbat denbora ikusten ez augula!

4 umeak.—Tira, tira; aldatu zak mozolo arpegi ori. Beti guregandik igesi; ezta senadore egin beaŕ ba-iñutekek ere!

5 umeak.—Nai al dek gurekin ibili, Tarzizio?

1 umeak.—Bai, gurekin ibiliko aiz.

Guziak.—Bai, bai (Baranoan).

Tarz.—Pozik ere pozik ni zukin ibiliko, baiña orain ezin. Agindu bat betetzera yoan beaŕ bizkoŕ bizkoŕ.

4 umeak.—Zer gero! Mutilak yolas egin beaŕ dik, eta gero gerokoak!

1 umeak.—Ez, ez, yoan dedila. Asto-burua adoratzen dik onek ere. Ta kristauak, mozolo arpegia ipintzen bestetan ez zekitek. (Azke uzten dute).

Tarz.—(Azke ikusi danean, yoan doa ezkeŕetik yaramonik egin bage).

2 umeak.—Kristaua dok!

Guztiak.—(Izututa). Ene! Kristaua!

IV'GN. AGEŔALDIA

Lengoak eta Binizio.

Binizio.—(Arin sartuaz). Zer darabiltzue, mutikoak? Zein da kristau ori?

Guztiak.—Tarzizio.

4 umeak.—Oraintxe bertan Flaminia kaletik ezkeŕera egin duan mutiko uraxe.

Binizio.—Aberatsa al da?

4 umeak.—Bai zera; oso beartsua. Ama alarguna da, ta bera ere beti goseaz ibiltzen da.

Binizio.—Bai, kristauak ia danak beartsuak. Euli zuri bat arkitzen eŕazago dek, aien aŕtean aberats bat baiño.

2 umeak.—(Gaiztoz). Oŕetan kristau-zalatzeak irabazi gutxi ematen dizu?

Biniz..—Ixilk ez ba-ago...! (Bere baitan). Banoa bizkoŕ, ea aŕapatzen dedan. Beaŕ bada nere asmoetarako ez zait gaizki etoŕiko (Yoan bizkoŕ ezkeŕetik).

1 umeak.—Ori kristau-zalatzalea al dek?

2 umeak.—Bai, bereala igaŕi zioat. Ez dek makala bera: txakuŕa erbiaren atzetik baiño ariñago ziyoak!

3 umeak.—Egingo nikek eta Tarzizio saltzekotan dabilela.

4 umeak.—Bai zera! Tarzizio oso beartsua dek.

3 umeak.—Ta zer? Utsakin konformatzen dituk oiek. Tarzizioren yantziak zerbait balio ditek; gaiñera, eskupekoren bat ere izango dik.

5 umeak.—Tarzizio gizaixoa!

4 umeak.—Aren eŕukiz?

5 umeak.—Ain gaztea ta il egin beaŕ!

1 umeak.—Zertan adoratzen dik asto-burua, ta Enperadorearen ezana egin nai ez dik?

5 umeak.—Orixe erakutsi ziote aita ta amak-eta; auek zigortu beaŕ lizkitekek, eta ez Tarzizio.

1 umeak.—Ago ixilik txorakeririk esan gabe. (Bostgaŕenari). Kristaua dek bai, ta gure Eŕiaren etsaia. Beraz, il dedila.

Guztiak.—Bai, bai. il dezatela!

3 umeak.—Ta naiko diagu. Ez al gaituk ba yolasera etoŕi?

Guztiak.—Bai, bai.

2 umeak.—Zein uan gelditzen?

3 umeak.—Ni.

4 umeak.—Ala ba; goazen danak yolasera. (Biyoaz ariñeketan eskuitik; irugaŕena atzetik aŕapatzen).

V'GN. AGEŔALDIA

Binizo bakaŕik.

Biniz.—(Ezkeŕetik geldiro sartzen da). Utsa! Ezin ezer atera kristau koxkoŕ oŕi! Ez det sekula ezagutu oiek besteko buru-gogoŕik! Naiago dute ondasunak galdu ta il, beren lagunak saldu baino!... Baiña ez noa zearo gaizki ere. Balerio anaiaktzaz.

GURE ANTZERKITXOA

"Tartsixi deuna" euzkelraltzen nengola esan nuanetik bat eta bestetik antzerti oŕen eske ditut; baña jaun batek gaztigatu zidan alegia, Markiegi'taŕ Peli apaiz jaunak euzkeraldu ta zerbait antolatua zeukala. Nere lana bertan-bera utzi, ta jaun oni eskatu nion ba; baita bere lan au bidaldu ere egin dit; eta nik EUZKADI'ra, bertan argitaldu dagiguentzat, onela ba, nai guziok izango deguta.

Antzertitxo au antzeztu nai dezutenok, gure izpaŕingitik artzea besterik ez dezute. Eskeŕikasko ba, euzkaralzale jaunari. ta EUZKADI'ri baita.

TENE.

Euzkotar Umien Alde

I

Umeak ondo azitzeko eretatik, zein artu beaŕ degu, maitetasuna ala aginpide...

"Baña aitak, eta batzuek-amak ere, ez dira irakasle-oŕ... kariaren iritzikoak."
Eugenio d'Ors. "Glosas"

Ara emen Ume-izti-egileak (pedagogos) geyen banandu dituan gaya. Gure onena, maitetasunaren bidez ala aginpidez alabai nola eman geinkio asierarik aren bidez? Era biak dituzte aldeztzale ugariak; bai maitetasunak bai aginpidek.

Umeari berak nai duana egiten egin utzi lezayokela. eta umearen asierak zenbide bat beaŕ duala, danak autortzen dute.

Ez dago ori ukatzen duan "educacionista„'rik.

Baña alkaŕ aitu eziña, umia nola zuzendu beaŕ danetik datoŕ: Biguntasuna bere biotzari dei egiñaz, ala zuzentasunez, benetasunez eta gurasoen aginpidea eŕiaz?

Guretzat, katolikotaŕentzat ez da egia J. J. Rousseau'k idatzi zuana, umea berez, ona dala, umea, berez onera eroritzen dala. Guk, katolikotaŕok. jatoŕizko edo pekatuan ziñistutzen degu, eta bai dakigu gu, geurez okeŕera eroritzen gu la, eta umeak eurez berdin-berdin.

Nai eta nai ez ba umeok zuzendu egin beaŕ, nai eta nai ez ba, lan au egin beaŕ zein era batera, zein bestera.

Esan ditzagun aginpide aldeztzale eta maitetasun aldeztzalearen aŕazoiak, gu za arduratsu au obeki azaldu dezagun.

Maitetasunaren aldekoak auxe diote: Umeai, txikia eta indargea dalako, gu agintzen diogun gauza bete erasotzea ez dago ondo. Umeak, txikia dan bitartean esana egingo du, baña bere baŕuan jayoko da edo erneko da protestaren azia, iñork igeŕi ez aŕen, landare txaŕ ori geroago ta aundiago. eta geroago ta mendulago asiko da; eta umea gizon egiten danean, bat-batera ertengo dio kanpo baŕuan urte askotan gordeta euki duan pozoniak. Txikitan bere gorputza esana da, ez ordea bere gogoa.

Umeari asiera ona emateko ez du balio gudari-etxe edo kuarteleko era gogoŕek. "Neuk agindu det neuk esan det eta kito" ikuŕitzat duan era abereti oŕek.

Umeai asiera ona emateko, bere biotzera eta bere adimenera jo beaŕ degu.

Ikusi dezala umeak, bere gurasoak gauza bat zergaitik agintzen dioten; ez gutu dezala eragozpenaren zegaitia; uleŕtu dezala ukamena nundik datoŕen zegaitikan dan.

Onela asitako umea ez da izango lan kai edo makina batek bezela esana eŕiduana.

Onela asitako umeak, pozik eta gogo osoz izango dira esangiñak, euren aginpidenak eta biotzak esandakoa ontzat ematen dutelako.

Gañera, bilduŕagaitik esangiña danaren aldian, asko balio du maitetasunak esangiña danak.

Lenengoak ez du esana azkatasunez egiten, azkea ez dalako. baña bigaŕen bai. Umeak ez dira gudari eran asi beaŕ, ume eran baizik.

Maitetasun eraren alde daudenak, aŕazoi abetxek ematen dituzte euren eran dez, eta begiratu batean bai dirudi zuzen daudela.

Eurak esaten dituztenak ez dira gezuŕak; egiak dira. Baña teorian egiak, egi aundiak izan aŕen, egintzan ez dute ain ondoren onik eman oi—geyenbeintzat—eta umeak ondo astea ez da noski teoria utza, egintza baizik.

Umeak ondo asteko beaŕ dan yakintzak. egintza edo praktikaren erakuspentan beaŕ du bere oñaŕi bat beintzat, umeak ondo asitzea, izan leiken lanik ederrena tsuena da ta.

Uŕengoan esango ditugu beste eraren alde daudenen aŕazoiak.

(Daŕaike.) AŔITOKIETA.

¡Iñaki, il da!

¡Aŕen, baña Jauna! Ain beste badaezpada emen eduki eta beaŕ-beaŕenekoak daramaguzuz! Oraingoan Iñaki; Lekube eta Uŕestarazu'taŕ Iñaki, Bilbao'ko "Eŕuki-Etxeko" eresi edo musika-irakasle ta erespatzako burua zana; txistulari-batza'ko idazkaria izandakoa; beti-betiko Jeltzalea; motrikoaŕik jatoŕenatakoa bere jayoteŕitik gogoz-egungo aldendu ez zana. Orain donokiratu zaigu 32 urtekin, bere emaztia itun utziaz.

Aguŕ, bada Iñaki; gero aŕte! Etzaiguzu Motrikuaŕai berealakoxean aiztuko. Jai aundietan zure "Motriku'ko abestiak" popuŕi atsegingaŕia entzungo diogu geure eresbatzari eta joŕai-dantza jatoŕak, gure kale-zaŕak auŕerakoan alaitzen ba-ditu. ¡Gaxoa! Au tamala benetan. Zoritxaŕeko gabiltz aspaldion Motriko'aŕok.

¿Zoritxaŕeko esan det? Ez bada. Okeŕ nago. Suspertu ta euren utsuneak betetzeko alegiñak egin daiguzan eta donokiak bereziki lagunduko gaitu, bai. Nork leukean Jaunarengan Motrikoaŕak dauzkaguzen aña jeltzale zintzo: "Arno-mendi". "Luis-Goixeŕi", "Eŕoman Txiki", "Arno-pe"; gauŕ, beŕiz, Iñaki ere bai...

Otoitz-egin daigun guziok ildakoen gogo-alde.

MURUGAIN.

Motriku'n, 1935'gn. IV'k. 29.

Madariaga'tar Markelin

Aspaldiko oleŕkari zaŕa, be, il yaku. "Markelin", gixon zuŕ ta azkaŕa, noxian bein bertsolari agertzen yakuna. Laukinitz'ko "Eunlia", eungaŕen urtetaruntz dabilena ta Erandio'ko "Markelin" ziran geure bertsolari zaŕen nausi.

Egunkari onen oŕi-aldietan amaika bertso-zaŕ ixan ba-dira. Gauŕkoen aŕtian idazle asko dagoz, baña 74 urtedunen aŕtian goralgaŕija da benetan euzkerea erabili ta idaz-lanetan agertutia. Txori-eŕi'ko solo ta baso-aŕtietako txindoŕ zolija zan. Abeŕija ta euzkerea gaitzat autu ebazan eta gai bi oŕei zintzo-zintzo zaindu-ixan dauz.

Oraingo idazle gastiak eztira konturatu agure zaŕ ta maŕekoŕ aretzaz, baña goguan daukagu bere ixena. Markelin zintzua languak eztira edonun aurkitzen. "Kiriŭiño" zanaren aldijetan, pitean-pitean agertzen zan bere bertsotxu batzukaz. Bertso-zaletasunak baña geyago egin eutsen, gero, urtiak Geure adizkide on-ona zan Markelin'en gogo-aldez otoi-egingo dogu. Eta Jaungoiko onari eskatuko dautsogu. aren ordez. beste bertsolari on bat edo bi soŕtu dadixala Txori-eŕi'ko baratzetan.

Euskera
Euske'tzaleen Orratza
Lko. BAT
Saltzalientzat
Saneurri bereziak
AŔIETA ITXIZALE
Legazpi, 10'an. - Urrut. 13.777. - Donostia

Livorno'tik Sfax'er

ATZEŔI-ZIAŔ.—Joŕalaren 8'gaŕen gabeko saspiretan urten gintzan Livorno'ko kaitik eta Saŕax'era, Apirka-aldeko txikitxu batera juan gintzan, au, ba patua zamatu biaŕ geunkan-eta. Ibilitzen oetan axe gogoŕik ezpa-genduban, be, ... atiño, geure ontzijari albokada edo emon-eragiten eutsezan. Ilaren 9'gaŕen goxalderuntz Monte Carlo ugaŕtia ... geban eta axia, be saŕtaldekua zan ... ro, Corcega-ugaŕtiaren axalpian ... ibili gintzan.

Egun bi ta erdi itxasuan egin-ondoren Sfax kaira edeŕki eldu giñan, an nau... tu baño len, zuŕutaŕija ontziratu eusken eta uŕengo egunean ontzija gertu ... zamatuta.

Emeko Apirka'ko mairuen oŭurak ba... gaŕijak dira ixan be gero. Euretatik ... jakingaŕija dogu. Mairuren bat ilten ... nian ilobiratu-orduko, lenengo egunez ... boi-usaintsu bategaz gorputz gustija ... bitzen dautse; bigaŕen egunez ur gozua ... ostera be ondo igurtzi daroe ta irugarren saŕtzen dabe, 15 neuŕkin edo mendeko alkondara baten, otziŭ eztedin-eta ... Gero kutxaratuten dabe. Baña au ezta ... dijena. Orain esango dodana aŕigaŕija ... gero.

Ilaŕi, azkenez kutxa baŕuban bere ... taldi luzerako saŕtzen dautsez oloz ... ko ogija ta lukainkak. Olantxe ilobi... tzen dabe il danaren gogua zeruratu ... lakuan.

Ilaren sendi osua aste baten egoten ... ilonduan, ilotza zainduten eta ogi ta ... utza jan daikez.

Kai onetan egun bero ta euzkitsubak ... daukoguz, geure Euzkadi'n dagoenez ... ixaten diralakuak. Negu-aldia emen ... ro daikegu, baña atsegin yakun-aŕen ... 'gaŕenian Inalanderantza abijau biaŕ gara. Aguŕ eta uŕengo aŕte.

U.'taŕ MIKEL.

URDULITZ

ONDO ETOŔIJAK.—Gauŕ eŕi onetan etoŕiko zaren abeŕtzale gustijai aguŕ mai... tekoŕ bat damotzubet Urduliz'ko eŕijaren ordez, ta eguna ondo igaro ta zeben etzi... etara alai ta gentzaz biurtutia geure naya... da ta uŕengo urteraŕte (J. L.). Aguŕ ba... gustijoi.

ONDIÑO-ITXITA. — Geure Batzoki edeŕa ondiño, lau izki onek idazten gu... gozanian beintzat ixiŭa dago, baña ez gu... re abeŕijaganako maŕesuba.

ETXERATUTA.—Ainbat geure aŕi... kide itxas-gixon dagoz etxeratuta aspaldijon.

GEXORIK.—Aspaldijan dagoz ogeratuta geure aŭizkide diran Bilbao'taŕ Eremenegilda ta Ansoleaga'taŕ Eusebi jeltzale onak. Arin osatutiagaz poztuko giŭatekez.

TXIBEŔI.

INGI BILDEGIA
Papelería de Oria.
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
TOLOSA
Teléfono, 154,